

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	MAKINA INDUSTRIALEN ELEMENTUEN KONPONKETA (zeharkakoa)	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0623		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Indusketetako eta fabriketako tresneria erdimugikorren eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Muntaketa eta mantentze-lan mekanikoak (zeharkakoa)	Iraupena	270
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Makina industrialen elementuak eta mekanismoak (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Makina industrialen elementuen muntaketa (zeharkakoa)		90
	Makina industrialen elementuetako matxuren diagnostikoa (zeharkakoa)		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0116_2 MAKINA ETA EKIPAMENDU MEKANIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA gaitasun-ataleko LB4 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Mantentze-teknikak aplikatzea, betiere elementuren bat ordezkatzeko eskatzen badute, prozedurak hautatuz eta behar den segurtasunarekin.

E1.1 Zerbitzuan dagoen makina bat -benetakoa edo simulatua- eta horren dokumentazio teknikoak edukita (dokumentazio horretan ordezkatu beharreko piezak edo elementuak zeintzuk diren adierazten da):

- Pieza edo elementu horiek dokumentazio teknikoan identifikatzea, horien ezaugarriak lortzea eta eragiketaren irismena ebaluatzea.
- Desmuntatze-/muntatze-plan bat ezartzea, baita aplikatu beharreko prozedurak ere, honako hauek adierazita: Deskonektatu beharreko elementuak. Makinaren zatiei dagokienez, isolatu beharrekoak. Kontuan hartu beharrekoak. Konexio-krokisa.
- Behar diren erremintak, neurtzeko ekipoak eta bitartekoak aukeratzea.
- Desmuntatzeko/muntatzeko faseetan behar diren segurtasun-neurrien plana ezartzea.
- Zirkuitu hidrauliko eta elektrikoetan desmuntatu behar diren ekipamenduak (ekipamenduak zirkuitu horretan konektatuta daude).
- Instalazioaren olioak berreskuratzea.
- Adierazitako piezak desmuntatzea, egiaztatzea, eta hala badagokio, ordezkatzeko, eta ekipamendua muntatzea.
- Ekipamenduak dagozkien zirkuituekin lotzea.
- Ekipamendua garbitzea, koipeztatzea, eta abar, funtzionamendu-baldintzetan utziz.
- Ekipoak eta instalazioak ongi funtzionatzen duten begiratzea, eta sistemak erregulatzea (hala badagokio), berriz ere funtzionatzeko moduan izan daitezen.
- Prozesuko lan-partek behar den zehaztasunez egitea.

Edukiak:

1. Makina industrialen sistema mekanikoen konponketa.

- Dokumentazio teknikoak, mantentze-lan mekanikoko eragiketei dagokienez.
- Konponketarako erabili beharreko makina, ekipamendu, lanabes, erreminta eta baliabideak.
- Garbiketa, berriz estutzeak, ihesak, lubrifikazioa eta hoztea, besteak beste.
- Elementu mekanikoen doikuntzak eta erregulazioa.
- Desmuntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Elementu mekanikoak neurtzeko eta egiaztatzeko teknikak.
- Pieza akastunak konpontzeagatik mantentze zentzuzkoak.
- Mantentze prebentiboko planen jarraipenagatik konponketa.
- Muntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostenak egitea.

2. Makina industrialen sistema pneumatiko/hidraulikoen konponketa.

- Dokumentazio teknikoa, elementu pneumatiko/hidraulikoen mantentze-lanetako eragiketei dagokienez.
- Konponketarako erabili beharreko makina, ekipamendu, lanabes, erreminta eta baliabideak.
- Garbiketa, berriz estutzeak, ihesak eta lubrifikazioa, besteak beste.
- Presio, emari, abiadura eta abarren doikuntzak eta erregulazioa.
- Desmuntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Elementu pneumatiko/hidraulikoak neurtzeko eta egiaztatzeko teknikak.
- Pieza akastunak konpontzeagatiko mantentze zentzatzaila.
- Mantentze prebentiboko planen jarraipenagatiko konponketa.
- Muntatzeko prozedurak eta teknikak.
- Egindako jardueren eta lortutako emaitzen txostenak egitea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0622 Makina industrialen elementuetako matxuren diagnostikoa.

Prestatzailen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Indusketetako eta fabriketako tresneria erdimugikorren eta instalazioen muntaketa eta mantentze-lan mekanikoak.